PLAZA

# CATALUÑA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

## Herritarrei kontsulta Consulta ciudadana



### 1 ISUURU ARQUITECTOS
(Carlos Abadías-Aitzpea Lazkano)

Lore berri bat / Una nueva flor



### 2 SAMAZUZU ARQUITECTOS
(Samaniego + Zuzunaga)



### 3 LUR PAISAJISTAK

Plaza berde eta bigun bat
Una plaza verde y blanda



Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak ontzat eman zituen, joan den urriaren 6an, Katalunia plaza guztiz berritzeko proiektua aukeratzeko lehiaketaren fase berrira aurkezteko aukeratutako hiru taldeak.

Plaza azpiko aparkalekua berriz ere Udalaren eskuetan geldituko denez, aparkaleku berri bat egin ahal izango da, lauzpabost solairukoa, bai eta plaza berri bat ere, Gros auzoko herritarren beharren eta eskatuko zaien iritziaren arabera moldatua.

Hala, bada, erakusketa honekin hasiera ematen zaio alkateak Auzoetako eta Partaidetzako ordezkariari planteatutako herritar partaidetzako prozesuari.

La Junta de Gobierno del Ayuntamiento dio conformidad el pasado 6 de octubre a la selección de los tres equipos que concurren a la nueva fase del concurso para elegir el proyecto de reforma total de la Plaza de Cataluña.

Como consecuencia de la reversión al Ayuntamiento del párking situado bajo la plaza, se va a proceder a la construcción de un nuevo aparcamiento de 4 ó 5 plantas, así como a la creación de una nueva plaza configurada de modo acorde con las necesidades y la opinión consultada de la ciudadanía del barrio de Gros.

Así, con esta Exposición, se da inicio al proceso de participación ciudadana planteado por Alcaldía a la Delegada de Barrios y Participación.

## TEKNIKARIEN IRITZIA / LA OPINIÓN DE LOS TÉCNICOS

UDALEKO PROIEKTU ETA OBRETAKO SAILA-DEPARTAMENTO MUNICIPAL DE PROYECTOS Y OBRAS

# Aukera bat...

**Pentsatzeko:** Zer behar dugu? Gune desberdin asko dituen plaza bat, edo gune gutxi baino oso desberdinak dituena, edo gutxi definitutako guneak dituena, nahi eta behar dugun moduan erabili ahal izateko.

**Aukeratzeko:** Nondik gabiltza? Nondik gatoz eta nora goaz? Ume eta nagusientzako egoteko lekua izateaz gain (irakurtzekoa, aisialdiaz gozatzekoa, jolastekoa, egotekoa, begira egotekoa, ondo pasatzekoa...), igarolekua ere bada. Oinezkoek egunero kale batetik bestera joateko erabiltzen dutena. Eraginik izan behar al du horrek plazaren forman? Edo bigarren mailako alderdia baino ez da?

**Besteekin egoteko.** Lagunekin gelditzeko tokia, eskolatik ateratzean jostatzen aritzekoa, haurtxoak paseatzekoa, kafe bat hartzekoa, auzoko festak egitekoa, aire zabaleko erakusketak egitekoa...? Zer nahi dugu? Plaza honek pisu handia izatea auzoko bizitzan?

**Ulertzeko.** Zeinek erabiltzen dugu eta zertarako? Denok erabil dezakegu. Batera? Zatika? Erabilera desberdinak izango ditu, agian, ordutegiaren arabera? Eta, hala ez bada, ondo legoke pertsona desberdinek ordu desberdinetan erabiltzea? Edo posible izan beharko luke denok aldi berean erabiltzeak?

**Aurrea hartzeko.** Trafikoa duten kaleetara irekitako plaza nahi dugu? Edo nahiago dugu umeentzat seguruagoa izatea? Plaza oinezkoen kaleen mailan egongo da (San Frantzisko eta Klaudio Anton de Luzuriaga), bai eta trafiko handia dutenenean ere (Galtzada Nagusia eta Zabaleta). Segurua al da hori? Eta ez bada, nola babestu umeak nagusiei traba egin gabe?

**Zalantza egiteko.** Oso berdea edo ez hainbeste? Gune berde handi bat, zapaldu daitekeena? Ez hain handia eta zapaldu ezin dena? Edo handia, baina babestua? Gune berde bat, lore eta landarerik ez duena, baina bertan jolasteko modukoa dena? Edo lorategi bat, behar bezala edukitzeko zapaldu ezin daitekeena?

**Eztabaidatzeko.** Inguruan zuhaitz askorik ez duen plaza bat? Erdialdean zuhaitz gehiago dituena? Itzala plazaren inguruan bakarrik ala beste toki batzuetan ere? Zuhaitzek egindako itzala? Zer zuhaitz mota jarri? Garrantzi handia du plazak urte sasoi desberdinetan izango duen itxura.

**Errespetatzeko.** Proiektuak protagonismo eman behar dio San Inazio elizaren alboko fatxadari edo ez du kontuan hartu behar?

**Hobetzeko.** Aparkalekuko sarrera eta irteera Zubieta kalean? Galtzada Nagusian? Zein da tokirik erosoena aparkalekuko sarrera eta irteera jartzeko? Eta non egiten diote traba gutxien dagoen trafiko handiari? Nola igoko gara plazara? Zenbat alternatiba ditugu? Nahikoak al dira?

**Aukera handia da. Denontzat.**

# Una oportunidad...

**Para pensar** ¿Qué necesitamos?. Una plaza con infinidad de espacios diferentes, con pocos espacios pero muy diferenciados o espacios poco definidos para poder usarla como queramos o necesitemos.

**Para elegir** ¿Por dónde circulamos? ¿De dónde venimos y a dónde vamos?. Además de ser espacio de estancia (lectura, ocio, juego, estar, ver, disfrutar...) para mayores y niños, no hay que olvidar que es un espacio de paso. De tránsito diario de unas calles a otras. ¿Es importante esto en la forma de la plaza? ¿es secundario?

**Para coincidir** ¿Sitio para quedar, para disfrutar al salir del colegio, para pasear a los bebés, para tomar un café, para fiestas del barrio, exposiciones al aire libre...? ¿Queremos que esta plaza tenga un peso importante en la vida del barrio?

**Para entender** ¿Quiénes la usamos y para qué?. La podemos usar todos. ¿A la vez? ¿Por zonas? ¿Tal vez se usa de forma diferente según el horario? Y si no es así ¿Debería poderse usar en horarios diferentes, por personas diferentes? ¿Debería ser posible el uso simultáneo de todos?

**Para prever** ¿Plaza abierta a las calles con tráfico? o ¿un uso más seguro para los niños?. La plaza estará a la altura de las calles peatonales (San Francisco y Klaudio Anton de Luzuriaga) y de las de importante tráfico (Gran Vía y Calle Zabaleta). ¿Es seguro? Si no lo es, ¿cómo proteger a los pequeños sin entorpecer a los mayores?

**Para dudar** ¿Más o menos verde?. ¿Un gran espacio verde pisable?, ¿en menor cantidad pero no pisable?. O ¿el grande pero protegido?. ¿Un espacio verde sin flores ni plantas pero donde podamos jugar o un jardín donde, para poder mantenerlo en condiciones, no se pueda pisar?.

**Para discutir** ¿Sin mucho arbolado perimetral? ¿mayor cantidad en los espacios centrales? Sombras sólo en el perímetro de la plaza o en otros espacios también?, ¿deben de ser por medio de árboles?, ¿qué tipo de árboles? Es importante el aspecto de la plaza en las diferentes estaciones del año.

**Para respetar** ¿El proyecto debe dar protagonismo a la fachada lateral de la Iglesia de San Ignacio o debe mantenerse al margen de ella?

**Para mejorar** ¿Salida y entrada del parkin por la calle Zabaleta?, ¿por Gran Vía? ¿Dónde son más cómodas la entrada y la salida del párking? y ¿dónde perjudican menos al fuerte tráfico existente? ¿Cómo subimos a la plaza? ¿Cuántas alternativas tenemos? ¿son suficientes?

**Para todos. Es una gran oportunidad.**







# Plazarik onena aukeratu nahi dugu

## Elegimos la mejor plaza

**ODON ELORZA**

alcalde@donostia.org

Donostiarrek gero eta gehiago parte hartzen dute beren udalak hartzen dituen erabakietan. Alkatetzak ere herriko demokrazia sakondu nahi du, Europako hiri berritzaileenek egiten duten moduan.

Izan ere, kudeaketa gardenaren, udal informazio objektibo eta zorrotzaren eta herritarrei iritzia eskatzeko prozesuen bidez baino ez da posible izango gobernua partekatua izatea eta denok konpromisoa hartzea Donostiak aurrean dituen gizarte erronka eta proiektu estrategikoekin.

Horregatik Donostiako Gobernua Gros auzoan bultzatzen ari den bidea, Katalunia plaza berriaren ezaugarriak aukeratzeko helburua duena.

Kontsulta prozesu honetan parte hartzeko eskatu nahi diet Groseko auzotarrei, kontuan hartuta, gainera, balio didaktiko garrantzitsua duela eta auzoa gehiago kohesionatzeko balio izango duela.

Herritar helduak garela erakutsi behar dugu, lehiaketara aurkeztutako hiru proposamenak, oso diferenteak elkarren artean, ezagutzeko ahalegina eginda. Hirurek iradokizunak jaso ditzakete, eta Okendo kultur etxean ikus daitezke. Bukaeran, Groseko auzotarrek egoki jotakoaren aldeko botoa eman ahal izango dute.

La participación de los donostiarras en la toma de decisiones de su Ayuntamiento es cada día más intensa. También desde la Alcaldía se busca la profundización de la democracia local, en línea con las ciudades europeas más innovadoras.

Porque sólo desde la transparencia en la gestión, la información municipal objetiva y rigurosa y la creación de procesos de consulta ciudadana, resultará posible un gobierno compartido y un compromiso colectivo con los retos sociales y proyectos estratégicos de San Sebastián.

De ahí el cauce que el Gobierno Donostiarra impulsa como experiencia en el barrio de Gros, en relación con la elección de las características que deberá reunir la nueva plaza de Cataluña.

Les pido a los vecinos y vecinas de Gros que participen en este proceso consultivo que tiene un valor didáctico importante y que servirá para cohesionar más nuestro barrio.

Tenemos que dar un ejemplo de madurez cívica interesándonos por las tres propuestas, bien diferenciadas, presentadas al concurso. Todas ellas están abiertas a sugerencias y se exponen en la Casa de Cultura de Okendo. Como culminación, la ciudadanía de Gros podrá votar a favor de aquella que considere más adecuada.

# ISUURU ARQUITECTOS
## (Carlos Abadías-Aitzpea Lazkano)

Diseinu natural bat, forma organikoez osoturikoa, landaretzak nagusitasuna duen tokia. Honek babesten ditu egonlekuak oinezkoentzat erakargarria den paisai bat eratuz eta plaza inguratzen duten etxe-bizitzei begirada iradokitzaile eta erakargarria sortuz.

Jolasteko toki bat, egunkaria irakurtzeko edo atsedena hartzeko leku lasai bat, umeentzako kulunkak dituen toki bat, askaria emateko aterpe batekin, maskotak pasiatzera ateratzeko toki bat...

Lore itxurako egitura bat. Sei "petalo" gehitzen zaizkion erdigune bakar bat erabilera desberdinekin: kirolaren petaloa, erlaxazioarena, helduena, maskoten petaloa, 6tik 13 urte bitartekoen joku eta emanaldi txikiena, 0tik 6 urterartekoena.

Inguruko landaretzak hiriko joan-etorritik bakartzen gaitu, toki natural bat, parkea den plaza bat sortuz. Era berean Zabaleta eta Galtzara Nagusiko zirkulazioa aldentzeko ezpondak sortzen dira ipar-ekialde eta ipar-mendealdean.

Plazaren geometriak oinezko ibiliak errazten ditu eta honek erdigunea "pasagune" bihurtzen du, erakargarriagoa eginez.

Aparkalekuaren sarrera egungo lekuan kokatzen da, Zabaleta kalean. Irteera aldiz Galtzara Nagusira eraman da, San Frantzisko kaleko trafikoa hein handi batean murrizteko.

Eraberean aparkalekurako oinezko 4 sarrerak aipaturiko babes-ezpondetan kokatzen dira.

Jardueraren maparen gainean sentsazioen mapa ezartzen da. Sentsazio hauek



# Lore berri bat
# Una nueva flor

## CATALUÑA

Un diseño natural, de formas orgánicas, donde la vegetación asume un papel protagonista: protege las zonas de estancia y conforma un paisaje atractivo para el peatón y una vista sugerente y muy reconocible desde los edificios de viviendas que rodean la plaza.



Un lugar donde jugar al balón, un lugar donde leer el periódico o descansar en un sitio tranquilo, un lugar con columpios para niños y con un sitio cubierto para darles la merienda, un lugar para pasear a las mascotas...

Una estructura de "Flor". Un único lugar central al que se suman 6 "pétalos" con diferentes usos: El pétalo del deporte, el de la relajación, el de los mayores, el pétalo de las mascotas, el de niños de 0 a 6 años y el de niños de 6 a 13 años.

Las zonas verdes perimetrales aíslan del "trajín" de la ciudad creando una plaza-parque, un espacio natural. El lugar se protege del tráfico rodado de las calles Zabaleta y Gran vía mediante un talud integrado en las zonas verdes a Noreste y a Noroeste.

La geometría de la plaza favorece los recorridos peatonales de forma que el espacio central cuenta con el atractivo adicional de ser también "lugar de paso".

El acceso rodado al parking, similar al actual, desde la calle Zabaleta. La salida, sin embargo, hacia la calle Gran Vía, evitando así gran parte del tráfico de la calle San Francisco.

Cuatro accesos peatonales al aparcamiento en las esquinas de la plaza integrados en los taludes de protección.

Al mapa de actividades se superpone un mapa de sensaciones creadas a través de la vegetación, de los colores del pavimento, el agua, la topografía, los olores, la iluminación, la música.

La floración de las distintas especies se ordena en el sentido de las agujas del reloj, haciendo que el color de las flores y su aroma gire en torno al centro de la plaza a lo largo de todo el año.

En enero florecerán el macasar y las mimosas, en febrero perdurará la flor de las mimosas, en marzo ciclamores y mimosas, en abril los ciclamores, en mayo los cerezos de Japón y los rosales paisajistas, en junio los rosales y magnóleos tulípera, en julio las catalpas, en agosto la lavanda, en septiembre la yuca y albiceas, en octubre comenzarán a enrojecer los arces, en noviembre florecerá la fothergilla major y en diciembre el macasar, con sus flores perfumadas.

landaretzak, zoruen margoek, urak, topografiak, usaiek, argi eta musikak sortzen ditu.

Landare eta zuhaitz mota desberdinak lorea ematen duten garaiaren arabera, ordulariaren zentzuaren aldera antolatzen dira, lore horien usai eta kolorea urtean zehar plazaren erdigunearen gira-biran mugituz.

Urtarrilean makasar eta mimosek emango dute lorea, otsailean mimosen loreak iraungo du, martxoan ziklamor eta mimosak, apirilean judasen arbolak, maiatzean gereziondo japoniarrak eta arrosak, ekainean arrosa eta magnolio tuliperak, uztailean katalpak, abuztuan izpilikuak, irailean yuka eta albiceak, urrian astigarrak gorritzen hasiko dira eta azaroan fothergilla majorek emango ditu loreak eta abenduan makasarrek bere lore usaintsuak.



# SAMAZUZU ARQUITECTOS
## (Samaniego-Zuzunaga)



ibiltzerakoan gure oinatzek basabideak marraztuko dituzte,
aztarnak utziko dituzte,
forma batzuk desberdinduko dira:
itxuraz, mugimendurik gabeko gune lasaiak

plazako urbanizazio berriak eskeintzen dizkigun hainbat aukeretara
izpiritu irekiarekin barneratuko gara,
alde batetik gros auzoko erdigune berdea izan beharko du,
elkargune izateari uko egin gabe,
kafetegietako terrazak,
haurren jokoak,
irakurtzeko eserlekuak,
eguzkitan edo eta itzalpean

al caminar nuestras huelllas marcan senderos,
dejan trazas,
se distinguen unas formas:
espacios tranquilos sobre los que no se aprecia movimiento

nos adentramos con el espiritu abierto a la infinidad de posibilidades que ofrece
la nueva urbanización de la plaza,
por una parte debe ser el corazón verde del barrio de gros,
sin renunciar a su vocación de punto de encuentro,
terrazas de bares,
juegos de niños,
bancos para sentarse a leer,
al sol o a la sombra



# CATALUÑA

bestetik,
erdirakoitasun izaerak,
hiri-altzari berezi bat eragin beharko du
groseko nortasun handiaren erantzule
hirian duen posizioarekiko balio duena

arkitektura eta landaretza, naturan oinarritutako paisaiak oroitarazteko bilduko dira

gune ireki bat izan behar du,
eskuraerraza,
bertan sartzera gonbidatuko gaituena.
egonlekuak, san frantzisko kalea eta eliza ondoan aurkitzen diren oinezkoen guneetara gerturatuko dira

por otra,
su carácter de centralidad,
debe potenciar el diseño de un mobiliario urbano específico
que responda a la fuerte personalidad de gros
que valore su posición en la ciudad

arquitectura y vegetación se aúnan para evocar paisajes inspirados en la naturaleza

debe ser un lugar abierto,
accesible,
que invite a entrar en él.
los espacios de estancia se aproximan a las áreas peatonales existentes junto a la parroquia y a la calle san francisco





zirrinda berde batek zabaleta eta gran via kaleetako trafikotik babestuko gaitu.
helburu garbi bat,
egonlekuei lasaitasuna
haurren jolasguneari segurantza eskeintzea

eserlekuen betetzea eta terrazen agerketa eragingo duena
beste auzoetako beste plaza batzuetan gertatu ohi den bezala,
eskolen irtera-garaiko bilgune izango dena.

oinezkoen eta gurpilezko trafiko fluxuak kontu handiz aztertuko dira,
helburu berdinarekin,
espazioak hierarkizatu, mugatu,
plaza, denengatik behar den moduan erabilia izan dadin.

una franja verde nos protege del tráfico de la calle zabaleta y de la gran vía.
un objetivo claro,
dotar de tranquilidad a los espacios de estancia
de seguridad para los niños en la área de juegos

lo que llenará los bancos y favorecerá la aparición de terrazas
buscando que funcione como ese punto de encuentro a la salida de los colegios que se da en otras plazas de otros barrios de la ciudad.

se estudiarán con especial cuidado los flujos, peatonales y rodados
con el mismo objetivo,
jerarquizar los espacios, delimitarlos
permitir que la plaza se utilice por todos de forma natural

# LUR PAISAJISTAK



Katalunia plaza Gros auzoko espazio publiko handiena da. Plaza honen diseinu berriak, lekuko beharrei erantzun behar die, hau da, haur jolaslekuak, lorategiak, festa garaietan erabilera anitzak jaso ditzakeen gunea, pasealekuak, itzalpeko estantziak eta inguruko komertzioa indartuko duen ordenazio orokorra. Oinarri hauek ardatz izanik, diseinu apala eta koherentea duen plaza praktiko bat proposatzen dugu.

Uuk, plaza **berde eta biguna** eskaintzen dugu. Gaur egun plaza gogorrak eraikitzeko joera dago, hormigoia nagusitzen den plazak dira eta hauetan lorategiek tratamendu marjinala izaten dute. Gure proposamenak azalera bigun eta berdeei, behar duten nagusitasuna ematen die. Modu honetan plazaren muina, belar gune bat eta haur jolasleku gune zabal batek sortzen dute. Plazaren erdialde guztia San Ignazio eliz aldera irekitzen den lorategia bilakatzen da. Honela, elizak plaza aldera duen fatxadari, berezko duen nortasuna indartzen zaio eta eliz fatxada, plazaren irudi nagusi bihurtzen da.

La plaza Cataluña es el espacio público urbano de mayor dimensión del barrio de Gros. Su nuevo diseño se debe de basar en crear un espacio que satisfaga las necesidades locales como el crear una zona de juegos, jardines, un espacio flexible que posibilite su colonización durante actos festivos, zonas de paseo y de estancia a la sombra y una ordenación que revalorice el comercio perimetral. Basándonos en estos principios proponemos una nueva plaza, de diseño coherente y sencillo, práctica y que satisfaga las demandadas descritas.

Proponemos una plaza **blanda y verde**. Hoy en día se tiende a crear plazas duras, donde el hormigón y el pavimento invaden la casi totalidad de la superficie, dejando las zonas ajardinadas como elementos marginales y residuales. Nosotros apostamos por dar centralidad a las superficies blandas, como el césped y el pavimento de goma de las zonas de juego infantiles. En este sentido, todo el centro de la plaza se convierte en un jardín abierto hacia la fachada de la iglesia de San Ignacio. Recuperamos esta fachada como el elemento noble que singularizará el conjunto de la plaza.



# Plaza berde eta biguna
# Una plaza verde y blanda



Eliz parean 600 m²-ko azalera gogor bat eraikiko da. Leku hau plazako gune hozpelena da eta bertan gros auzoko festa ekitaldi desberdinetan, bai txosna, zein taulatuak jarri ahal izango dira.

Parean gelditzen den belar gunearen azalera 1.200 m²-koa da. Azalera ireki eta berde honek erabilera anitzak jaso ahal izango ditu. Belar gunearen ertzetan pinazi pinu sakabanatuak landatuko dira eta hauek hosto iraunkorreko bertikaltasuna ziurtatuko dute. Belar gunea eta jolasgunearen artean egur azalera bat jarriko da. Egur tarima estantzi gune izango da eta aldi berean plazako trantsitu diagonalak bideratuko ditu.

Azkenik, plazaren erdialdeko espazioa, 840 m²-ko azalera duen haur jolasleku eremu bigunak osatzen du. Bertan kautxuzko zoru jarrai jarriko da eta kurbadun irudi koloretsuak marraztuko dira, horiak eta beltzak. Goma azalera gainean egurrezko jolas ugari jarritiko dira.

Plazaren erdialdearen izaera berde eta bigunarekin kontrajarriaz, azalera gogorreko pasealeku periferikoak sortzen dira. Ilara bikoitza osaturik arrosa koloreko loraldia duten gereziondoak landatzen dira eta hauen gerizpean egurrezko eserleku erosoak jarriko dira. Plazako pasealeku hauek, plazaren trantsitu perimetralak bultzatzen dituzte eta honek lekuko komertzioa indartuko du. Azkenik, plaza gauaz eraldatu eta piztuko duen argiztapen paregabea proposatzen da.

A pie de la iglesia se crea una zona dura de 600 m². Esta es la zona más fría y sombría de toda la plaza y sobre esta superficie dura se podrán instalar las txoznas y tablados para los eventos festivos.

La zona de césped anexa tiene una superficie de 1.200 m². Se propone una superficie abierta creando un césped para ser usado y que sirva como zona de juegos espontáneos. En la superficie central de césped se plantarán unos pinos piñoneros posicionados periféricamente que aportarán volumen verde al conjunto. Entre el césped y la zona de juegos se construye una tarima de madera que servirá como zona de estancia al tiempo que facilitará el tránsito diagonal de la plaza.



Por último, una gran superficie de 840 m² de zona de juegos infantiles completa el espacio central blando. Se proyecta un pavimento de caucho continuo dibujando unas ondas curvas de dos colores que aportarán frescura y dinamismo al lugar. Sobre esta goma blanda se coloca un gran surtido de juegos que satisfagan a los más jóvenes del barrio de Gros.

Todo el espacio periférico al centro blando se pavimenta creando paseos perimetrales arbolados. A la sombra de la doble alineación de cerezos de flor rosa se colocarán gran número de cómodos bancos de madera. Este paseo perimetral centra el uso transitorio de la plaza por los límites lo que potencia la revalorización del comercio de la zona. Finalmente se plantea una iluminación singular que transforme la plaza durante las horas nocturnas.

## Duñike Agirrezabalaga Ugarte

ALKATEORDEA ETA
BERDINTASUNEKO, AUZOETAKO
ETA HERRITARREN
PARTAIDETZAKO ORDEZKARIA

TENIENTE ALCALDE Y DELEGADA
DE IGUALDAD PARA PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y BARRIOS

Demokrazia herritarrek gai publikoen gainean duten subiranotasuna praktikan jartzea da. Donostiako Udalak urte batzuk daramatza erakunde zibikoek eta, oro har, herritarrek herriko bizitzaren kudeaketan parte hartzea bilatzen duten esperientziak gauzatzen, eta hiriko Gobernuak lan ildo hori indartzeko asmoa dauka.

Katalunia plaza Gros auzoko toki nagusietako bat da. Izan ere, auzoko biztanle askok erabiltzen dute, igaroleku moduan nahiz atseden hartzeko edo aisialdiaz gozatzeko toki moduan. Plazaren diseinuan egiten den funtsezko edozein aldaketak eragin handia izango du erabiltzaileen eguneroko bizitzan, eta etorkizunean emango zaion erabilera finkatuko du. Hori dela-eta, hiriko Gobernuak uste du, Grosen bizi zarenez, zure iritziak balio handia duela eta kontuan hartu behar dela plaza toki erakargarriagoa, erabiliagoa eta inguruan integratuagoa izateko egingo diren proiektuetan.

Amara, Altza, Martutene eta hiriko beste alde batzuetan bizi direnekin egin dugun bezala, esparru publikoa berriro diseinatzeko lanean zuzenean parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Horregatik, gure proposamenen berri emango dizugu, eta gustatuko litzaidake zuk haietaz duzun iritzia eta haiek hobetzeko dituzun ideiak eta iradokizunak ematea. Izan ere, zuk, Groseko auzotarra zarenez, inork baino hobeto dakizu zer nahi duzun zure auzorako.

Zure laguntza behar dugu Katalunia plaza denontzako esparrua izan dadin.

**Zure zain gaude.**



La democracia es el ejercicio práctico de la soberanía de la ciudadanía sobre los asuntos públicos. El Ayuntamiento de Donostia lleva años desarrollando experiencias que persiguen la implicación de las entidades cívicas y de la ciudadanía en general en la gestión de la vida local, y es voluntad del Gobierno de la ciudad potenciar esta línea de trabajo.

La plaza de Cataluña es uno de los puntos neurálgicos de Gros, utilizada por una buena parte de los y las habitantes del barrio bien como lugar de paso o como espacio para el ocio y el descanso. Cualquier modificación sustancial del diseño de la plaza tendrá una incidencia importante sobre la vida cotidiana de quienes la utilizan y determinará su uso futuro, y por ello el Gobierno de la ciudad considera que tu opinión, como habitante de Gros, puede ser muy valiosa para hacer de la plaza un lugar más atractivo, más utilizado y más integrado en el entorno.

Al igual que ya hemos hecho con quienes viven en otras zonas de la ciudad, como Amara, Altza o Martutene, te invitamos a que tomes parte directamente en el rediseño de un espacio público. Por ello, vamos a informarte de las diversas propuestas que planteamos, y nos gustaría que nos dieras tu opinión sobre ellas y que aportaras tus ideas y sugerencias para mejorarlas, ya que tú, como habitante de Gros, eres quien mejor puede saber qué quieres para tu barrio.

Sólo con tu ayuda conseguiremos hacer de la plaza de Cataluña un espacio para todas y todos.

**Te esperamos.**

# Parte hartzeko, iritzia azaltzeko, aukeratzeko oportunitate bat...

**Lehiaketa publikoaren epaimahaiak aukeraturiko hiru aurreproiektuek elkarren desberdin-desberdinak diren antolamendu proposamenak aurkezten dituzte. Donostiako Gobernuak kontsulta prozesu hau proposatzen du, Groseko auzotar gehienek aukera dezaten zein den auzoaren beharretara ondoen egokitzen den proposamena. Gehiengoaren iritzi hori ondo kontuan izango du Udalak azken proiektuaren erredakzioa esleitzeko erabakia hartu behar duen unean.**

## nola hartu parte

Proiektuan interesa duzun pertsona bazara, plaza erabili ohi duzulako, auzotarra zarelako, auzoan lan egiten duzulako, proposamenen bat duzulako, iritzia eman nahi duzulako... erakusketa aretoan **postontzi** bat edukiko duzu eta **www.donostia.org** udal web orrian plazari buruzko ideiak adierazteko modua ere izango duzu.

Auzotarra bazara eta mapan adierazten dugun aldean erroldaturik bazaude 2006ko urriaren 31 baino lehenagotik era abenduaren 17a baino lehen 16 urte beteta badituzu, plazari emango zeniokeen erabilerari ondoen egokitzen den proposamenari botoa ematea duzu abenduaren 13tik 17a arte Okendo kultur etxeko erakusketa aretoan bertan.

## nola balioetsiko dugun

Donostiako Gobernuak prozesuan zenbat lagunek parte hartu duten eta zer bozkatu duten aztertuko du eta gehiengoaren iritzia izango du kontuan. Gainera, behin betiko proiektuari erakusketa aretoko postontzian eta web orrian adierazitako iradokizunak sartzen ahaleginduko da, gehiengoarenak badira eta kontsultan irabazle irteten den plaza diseinuaren irizpidearen aurkakoak ez badira.



# Una oportunidad para participar, para opinar, para elegir....

**Los tres anteproyectos seleccionados por el jurado del concurso público plantean propuestas de ordenación muy diferentes entre sí. El Gobierno de la ciudad propone este proceso de consulta con el fin de conocer la que en opinión de la mayoría de los vecinos y vecinas de Gros es la propuesta que mejor da respuesta a las necesidades del barrio. Esta opinión mayoritaria será tenida en cuenta en el momento en el que en el Ayuntamiento se tome la decisión sobre la adjudicación para la redacción del proyecto definitivo.**

## cómo puedes participar

Si eres una persona interesada en el proyecto porque eres usuaria habitual de la plaza, porque vives en el barrio, porque trabajas en Gros, porque tienes algo que proponer, porque quieres opinar..., tienes un **buzón** en la sala de exposición y en la página web del Ayuntamiento **www.donostia.org** donde podrás exponer todas tus ideas sobre esta plaza.

Si además eres vecino, estás empadronado en la zona que señalamos en el mapa antes del 31 de octubre de 2006, y has cumplido 16 años antes del 17 de diciembre, puedes dar tu voto a la propuesta que se adecúe más al uso que le quieres dar a la plaza, entre los días 13 y 17 de diciembre, en la misma Sala de Exposición de la Casa de Cultura de Okendo.

## cómo se valorará



El Gobierno donostiarra, valorando debidamente el porcentaje de participación en el proceso y el apoyo expresado en la votación, atenderá la opinión que resulte mayoritaria. Además, se tratarán de incorporar al proyecto definitivo aquellas sugerencias recibidas en los buzones de la exposición y en la página web que resulten ampliamente mayoritarias y no contradictorias con los criterios de diseño de la plaza ganadora en la consulta.

## 2006ko AZAROAK 6tik, ABENDUAK 17ra ARTE
## DEL 6 NOVIEMBRE AL 17 DICIEMBRE DE 2006

ORDUTEGIA-HORARIO

Astelehenetik Larunbatera
Lunes-Sábado ........ 10.00-14.00 / 16.30-20.00

**IGANDEETAN ITXITA / DOMINGOS CERRADO**

OKENDO KULTUR ETXEKO ERAKUSKETA ARETOA
SALA DE EXPOSICIONES DEL CENTRO CULTURAL OKENDO



### HITZALDIEN EGUTEGIA
### CALENDARIO DE CONFERENCIAS

| | | |
|---|---|---|
| AZAROA Noviembre 13 | Astelehena Lunes 19:00 | **ISUURU ARQUITECTOS** (Carlos Abadías-Aitzpea Lazkano) Lore berri bat / Una nueva flor |
| AZAROA Noviembre 20 | Astelehena Lunes 19:00 | **SAMAZUZU ARQUITECTOS** (Samaniego + Zuzunaga) |
| AZAROA Noviembre 27 | Astelehena Lunes 19:00 | **LUR PAISAJISTAK** Plaza berde eta bigun bat / Una plaza verde y blanda |

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

**ALDE HONETAN BIZI BAZARA, BOTOA EMAN DEZAKEZU / SI VIVES EN ESTA ZONA PUEDES VOTAR**




## BOTAZIOA
Abenduaren 13tik 17a arte

## VOTACIÓN
Del 13 al 17 de diciembre

**Botazioa erakusketaren azken bost egunetan egingo da.**

Abenduaren 13an, asteazkenarekin; 14an, ostegunarekin; 15ean, ostiralarekin; 16an, larunbatarekin, eta 17an, igandearekin (goizean).

**La votación se hará durante los 5 últimos días de la exposición.**

El miércoles 13 de diciembre, jueves 14, viernes 15, sábado 16 y domingo 17 de diciembre (por la mañana).

Ale-Kopurua: 15.000 ale (0,39 euro -beza BARNE- ALEKO) • Tirada: 15.000 ejemplares (0,39 euros -IVA incluido- por unidad)

www.donostia.org